

H **LH6**



Zuzenketarako koadernoak

Izen-deiturak

Ikastetxea

Taldea

Herria

Data



60 minutu dituzu proba
hau egiteko

Gaitasuna ekoizpen idatzian

LHko 6. maila

2015-2016 ikasturtea

Idazmena zuzentzeko irizpideak (Lehen Hezkuntzako 6.a)

Zuzenketa lanean ondoko alderdietan puntuazioa eman behar da: egokitasuna eta aurkezpena, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna. Alderdi bakoitzari 1etik 4ra bitarteko puntuazioa emanen zaio, ondoko irizpideen arabera:

	1. puntuazioa	2. puntuazioa	3. puntuazioa	4. puntuazioa
Egokitasuna eta aurkezpena	Zeharo eskasa etapa bukaerarako. Ekoizpena ez dator bat eskatutako lanarekin, erregistro desegokia darabil (arrunkeriak, behar ez diren lagunarteko esamoldeak), gaizki aurkeztua dago edo letrak testuaren ulermena zailtzen du.	1. eta 3. puntuazioen artean maila ertaina erakutsi du. 3. mailako eskakizunetako hiru bete ditu.	Etapa bukaerarako maila egokia du. Etapa bukaerako mailaren baldintzak hauek dira: ▪ Eskatu zaion lana egin du, xedeari eta luzerari dagokionez. ▪ Komunikazio egoerarako egokia den erregistroa erabili du. ▪ Ekoizpena txukun eta espazioaren banaketa egokiarekin (izenburua, marjinak...) aurkeztu du. ▪ Letra argia eta ulergarria da.	Lehen Hezkuntzako 6. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du. 3. puntuazioko lau baldintzak betetzen ditu eta testua egiteko orduan irudimena eta orijinaltasuna erakutsi ditu.
Koherentzia	Zeharo eskasa etapa bukaerarako. Testuak ez du zentzu orokorrik, ez ditu errespetatzen eskatutako testu generoaren oinarritzko ezaugarriak, adierazpenean erakusten duen argitasun gabeziak zaildu egiten du testuaren ulermena, arrazoirik gabeko jauzi eta omisioak daude.	1. puntuazioaren eta 3. puntuazioaren arteko maila du. 3. mailako eskakizunetako hiru bete ditu.	Etapa bukaerarako maila egokia du. Etapa bukaerako mailaren baldintzak hauek dira: ▪ Ekoizpenak zentzu orokorra du, gai baten inguruan antolatzen da. ▪ Eskatutako testu generoaren oinarritzko ezaugarriak errespetatu ditu. ▪ Aski argitasunez egin du azalpena (paragrafoa-idea) eta beharrezko informazioa sartu du. ▪ Gaiari dagokionez progresioa dago, baina badaude gehienez ere bi jauzi edo omisio, progresio orokorra eragotzen ez dutenak.	Lehen Hezkuntzako 6. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du. 3. puntuazioko baldintzak betetzen ditu eta, gainera, testu generoaren berezko ezaugarriak errespetatu ditu, argitasunez egin du azalpena, ez dago jauzi edo omisiorik eta bukaera ez du tarrapataka egin.
Kohesioa	Zeharo eskasa etapa bukaerarako. Oinarritzko puntuazio akatsak ditu (perpausak bereizteko ez du erabiltzen ez punturik ezta komarik ere enumerazioetan, galdera eta harridura ikurrak modu desegokian erabili ditu), ohiko lokailuak gaizki erabili ditu edo ez ditu erabili, hizkera errepikakorra darabil.	1. puntuazioaren eta 3. puntuazioaren arteko maila du. 3. mailaren eskakizunetako bi bete ditu.	Etapa bukaerarako maila egokia du. Etapa bukaerako mailaren baldintzak hauek dira: ▪ Puntuazioa (puntua, koma, puntua eta koma, bi puntuak, gidoia, galdera eta harridura ikurrak, parentesia, etenpuntuak) zaindu ditu, nahiz eta gehienez ere bi akats izan ditzakeen. ▪ Testua kohesionatzeko ohikoak diren lokailuak erabili ditu. ▪ Beharrezkoak ez diren errepikapenak ekiditeko zenbait mekanismo badarabil (sinonimoak, izenordainak, substantibazioa...).	Lehen Hezkuntzako 6. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du. 3. puntuazioko baldintzak betetzen ditu eta, gainera, lokailu egokiak eta hizkera askotarikoa darabiltza.
Zuzentasuna	Zeharo eskasa etapa bukaerarako. Hiru ortografia akats baino gehiago egin ditu, komunztadura akatsak egin ditu, aditz denborak oker erabili ditu eta gehienez ere emendiozko perpaus koordinatuak darabiltza.	1. puntuazioaren eta 3. puntuazioaren arteko maila du. 3. mailako eskakizunetako hiru bete ditu.	Etapa bukaerarako maila egokia du. Etapa bukaerako mailaren baldintzak hauek dira: ▪ Oinarritzko ortografia menderatu du, nahiz eta hiru akats ortografiko ere egin ditzakeen. ▪ Komunztadura egokitasunez aplikatu du, nahiz eta akats bat ere izan dezakeen. ▪ Aditz denborak eta formak egoki erabili ditu, nahiz eta bi akats ere izan ditzakeen. ▪ Deklinabide kasuak ongi erabili ditu, nahiz eta bi akats ere izan ditzakeen. ▪ Ongi eraturiko mendeko hiru perpaus erabili ditu, gutxienez.	Lehen Hezkuntzako 6. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du. 3. puntuazioko baldintzak bete ditu eta, gainera, ez du ortografia akatsik eta morfosintaxia menderatu du, Lehen Hezkuntzako 6. mailakoa izateko.

Oharra: "0" puntuazioa soilik emango da ikasleak ez badu lana egin.

Jarraian, aurrez azaldutako irizpideen arabera zuzendutako zenbait testu jaso dira. Emandako puntuazioez gain, zuzenketen deskribapenak ematen dira, zehaztasunez. Ikus daitekeenez, ez da prozedura mekaniko bat. Kasu bakoitzean, adierazle bakoitzaren arabera baloratuko du ariketa zuzentzaileak. Kasu askotan nabarmena da adierazlea betetzen duten edo ez. Beste batzuetan, ordea, ez da horren agerikoa eta malgutasunez baloratu behar da nahitaez.

1. adibidea

HAURAK ETA LITXARRERIAK

Urtebetetze batean litxarreriak jarri behar dira, zeren bakoarik egun bat da urte osoa eta gero. Esan dute ^{biogean} etxeetan ^{litate} barazkiak eta hori dena jan behar da osasuntsu jan, baino ez urtebetetzeetan zeren haurrei gustatzen zaie urtebetetzeak nahi duten litxarreriak jateko ez barazkia jenda jateko. Hori da nire ~~argudioa~~ ^{argudioa} nire ~~an~~ ^{an} ~~argudioa~~ ^{argudioa} ~~argudioa~~ ^{argudioa} Argudioa

~~Argudioa~~

Egokitasuna eta aurkezpena

- Lana. *Ekoizpena ez dator bat eskatutako lanarekin xedeari eta luzerari dagokienez.*
- Erregistroa. *Erregistro desegokia erabili du, langunarteko eta ahozko hizkuntza pobrea islatu du idatzian.*
- Itxura. *Itxura desegokia, zirriborroz beterik.*
- Letra. *Letra garbia, erregularra eta ulergarria da.*

Itema		Puntuazioa (0, 1, 2, 3 edo 4)
1	Egokitasuna eta aurkezpena	1
2	Koherentzia	1
3	Kohesioa	1
4	Zuzentasuna	2
Oso-tara		5

Alderdi honen balorazioa:

Lau baldintzetatik bat betetzen du; beraz, dagokion puntuazioa 1 da.

Koherentzia

- Zentzu orokorra. *Ekoizpenak zentzu globala du, nahiz eta sinpleegia izan etapa bukaerarako.*
- Egitura. *Ez ditu errespetatu eskatutako testu generoaren oinarrizko ezaugarriak.*
- Adierazpena. *Ekoizpena erraz ulertzen da, baina informazio gutxi du eta pobrea da 6. mailarako.*
- Bilakaera tematikoa. *Ez dago garapenik. Azaltzen diren bi ideiak hasieratik agertzen dira.*

Alderdi honen balorazioa:

Ikus daitekeenez, lau eskakizunetatik soilik bat betetzen du, eta hori erdizka; beraz, puntu 1 dagokio.

Kohesioa

- Puntuazioa. *Puntua ongi erabili du, koma ez beti.*
- Lokailuak. *Testu sinplea da, lokailuak erabiltzeko aukera gutxi ematen duena.*
- Errepikapenak. *Ez dago gehiegizko errepikapenik laburregia delako.*

Alderdi honen balorazioa:

Zeharo eskasa etapa bukaerarako. Beraz, dagokion puntuazioa puntu 1 da.

Zuzentasuna

- Ortografia. *Orokorrean ez du ortografia akatsik; bat ikus daiteke, tx-en ordeztz-jartzeagatik.*
- Komunztadura. *Orokorrean ez dago komunztadura akatsik, pluralgile baten kasuan izan ezik.*
- Aditza. *Ezin da neurtu, idazlana oso sinplea delako.*
- Deklinabidea. *Deklinabide atzizkiak egoki erabili ditu kasu batean izan ezik.*
- Mendeko perpausak. *Mendeko perpaus batzuk sartu ditu, baina ez ongi eraturik.*

Alderdi honen balorazioa:

Bost eskakizunetatik hiru betetzen ditu; beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira. Dena dela, ez da ahaztu behar orokorrean ez dela etapa amaieran espero daitekeen idazlana.

2. adibidea

URTEBETETZE FESTAK

Urtebetetzeak augi posatzeko eta disfrutatzeko daude, eta kalasirik urtebetetzeetan janari ez-osasugarria jateagatik ez dela ezer posatzen.

Alergia arazoak ez egotea, urtebetetzea baino lehen uska-mutikariak daukaten zerbitzaria alergia galdetu behar da. Alergia daukatuari kalasirik ez jartzeko.

Nire ustez, urtebetetzean dena osasugarria ez dela izan behar, eta janari ez-osasugarria jarri daiteke. Zereu uik uste dut uska-mutikak gehiago disfrutatzeko dutela uali dutena jateu, eta normala da denak janari ez-osasugarria jatea, ez ez-osasugarria itatea gatik, kalasirik gusatoa dutelako gehiago janari uste duri. Adibidez: Txokolatea, tartak, galletak... Janari ez-osasugarria jatea gatik ez da ezer gertatzen.

Egokitasuna eta aurkezpena

- Lana. *Eskatutako lanari erantzun dio, baina luzerari dagokionez eskasa da Lehen Hezkuntzako 6. mailakoa izateko.*
- Erregistroa. *Komunikazio egoerari dagokion erregistroa erabili du.*
- Itxura. *Testua oso txukun idatzi du. Itxura ona ematen du.*
- Letra. *Letra garbia, erregularra eta ulergarria da. Eskuineko marjina ez du beti errespetatu.*

Itema		Puntuazioa (0, 1, 2, 3 edo 4)
1	Egokitasuna eta aurkezpena	2
2	Koherentzia	2
3	Kohesioa	2
4	Zuzentasuna	3
Osotara		9

Alderdi honen balorazioa:

Lau baldintzetatik bi erabat bete ditu eta beste bi erdizka; beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.

Koherentzia

- Zentzu orokorra. *Ekoizpenak zentzu globala du, gai baten inguruan antolatzen da.*
- Egitura. *Eskatutako testu generoaren oinarritzko ezaugarriak igartzen dira nolabait, baina ez dira argi islatzen.*
- Adierazpena. *Argitasunez egin du azalpena, sinpleegia bada ere Lehen Hezkuntzako 6. mailarako.*
- Bilakaera tematikoa. *Gaiari dagokionez ez dago progresio orokorra eragozten duen jauzirik edo omisiorik.*

Alderdi honen balorazioa:

Ikus daitekeenez, lau eskakizunetatik hiru betetzen ditu; beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.

Kohesioa

- Puntuazioa. *Ez du puntuazio akatsik.*
- Lokailuak. *Testua kohesionatzeko ohikoak diren lokailu-urritasuna agerian da.*
- Errepikapenak. *Gehiegizko errepikapenak saihestu ditu.*

Alderdi honen balorazioa:

Hiru baldintzetatik bi betetzen ditu; beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.

Zuzentasuna

- Ortografia. *Ortografia akats bakarra du (*izatea gatik).*
- Komunztadura. *Komunztadura zaindu du, ez dago akatsik.*
- Aditza. *Aditz denborak eta formak egoki erabili ditu.*
- Deklinabidea. *Orokorrean, deklinabide atzizkiak egoki erabili ditu, kasu batean izan ezik (neska-mutilak).*
- Mendeko perpausak. *Sintaxiari dagokionez, gaztelerazko egitura nabaritzen da batzuetan. Halere, ongi eraturiko mendeko perpausak erabili ditu (konpletiboa, erlatibozkoa, kausazkoa...).*

Alderdi honen balorazioa:

Bost baldintzak bete ditu gutxi gorabehera; beraz, dagokion puntuazioa 3 da.

3. adibidea

URTEBETETZEEN JAKIEN

BANAKETA

Duelo gutxi ikusi nuen ikusketaren ospatzen diren urtebetetzeen oso estruktura direla eta hau da nire ingoa nuen:

Leheniketa behin, mota gehiago da jeneria jarrita nuke, adibidez, animazioengandik ateratuko jeneria, txorizoe bezala. Edote azukre dutenak ere gominak adibidez. Umeak direlako eta oraindik haunditu behar direlako. Etc ez dagoelako garai nahiz bait azukre edo koipea duten jeneriak jan.

Alerfidoak diren umeentzat, besteengandik banandutako maki batean jarritako nien jeneria, ez konfunditzeko eta horrela denak izango zuten toki bat non bereizten zkeen jeneria dagoen.

Jeneri mota asko duude eta badiren goztiak gandi zerbit jarritako nuke, denetarik jateko. Baina ere ezin gara pisu koipea duen jeneriak, bikerik pixka bat jerri, etc azukre duten jakiek berdin.

Nire iritziz ez dago garai koipe pixka bat edo azukre duten jakiek jateko nahiz baina, etc uste dut denetarik jan behar dela haritzeko, orduan zergatik jartzen dago umei koipe eta azukre gutxi jeneriak urtebetetzeen? Gainera gero horien ematen dute esan osor eta jaten dutena erretzen dute julesten.

Espero dut hau aldatzea.

Egokitasuna eta aurkezpena

- Lana. *Eskatutako lanari erantzun dio, xedeari eta luzerari dagokienez. Hartzaileak eta asmo komunikatiboa aintzat hartu ditu.*
- Erregistroa. *Komunikazio egoerarako egokia den erregistroa erabili du.*
- Itxura. *Itxura onargarria du, nahiz eta eskuineko marjina ez errespetatu azkeneko paragrafoan.*
- Letra. *Letra ulergarria da.*

Itema		Puntuazioa (0, 1, 2, 3 edo 4)
1	Egokitasuna eta aurkezpena	3
2	Koherentzia	3
3	Kohesioa	3
4	Zuzentasuna	3
Osotara		12

Alderdi honen balorazioa:

Lau baldintzak betetzen ditu; beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.

Koherentzia

- Zentzu orokorra. *Ekoizpenak zentzu globala du, gai baten inguruan antolatzen da. Tesia erraz ulertzen da.*
- Egitura. *Eskatutako testu generoaren oinarritzko ezaugarriak errespetatu ditu: baditu izenburua, sarrera tesiarekin, argudioen gorputza eta ondorioa.*
- Adierazpena. *Argitasunez egin du azalpena. Ez dago kontraesanik edo inkoherentziarik.*
- Bilakaera tematikoa. *Informazioaren garapena igartzen da, ez dago progresio orokorra eragozten duen jauzirik edo omisiorik.*

Alderdi honen balorazioa:

Ikus daitekeenez, lau eskakizunak betetzen ditu ; beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.

Kohesioa

- Puntuazioa. *Ez du puntuazio akatsik.*
- Lokailuak. *Testua kohesionatzeko lokailuak erabili ditu.*
- Errepikapenak. *Gehiegizko errepikapenak saihestu ditu.*

Alderdi honen balorazioa:

Hiru baldintzak betetzen ditu. Dagokion puntuazioa 3 da.

Zuzentasuna

- Ortografia. *Oinarritzko ortografia menderatu du, nahiz eta bi akats izan (*nohizbait eta *noizbenka).*
- Komunztadura. *Komunztadura zaindu du, ez dago akatsik.*
- Aditza. *Aditz denborak ongi erabili ditu. Aditz formei dagokienez, kasu batean Nor-Nork erabili beharrean Nor erabili du.*
- Deklinabidea. *Deklinabide atzizkiak egoki erabili ditu, kasu batean izan ezik (guztiengandik).*
- Mendeko perpausak. *Sintaxiari dagokionez, gaztelerazko egitura nabaritzen da batzuetan. Halere, ongi eraturiko mendeko perpausak erabili ditu (konpletiboa, erlatibozkoa, kausazkoa, denborazkoa...).*

Alderdi honen balorazioa:

Bost baldintzak bete ditu gutxi gorabehera; beraz, dagokion puntuazioa 3 da.

4. adibidea

Osasuntsuagarak izan daitezke ?

Orain dela aste batzuk, urtebetetze festa batera joan nintzen. Hurrengo bi egunak tripa mina minarekin pasatu nuen, hainbeste azukre jan eta gero. Horrelakarak izan behar ote dira urtebetetze festak? Azukre pila bat eta gero tripa mina? Ez dut espero. Badirudi azukredun eta koipekun elikagaiak jan eta edon behar direla festa bat debertigamiz izateko. Nire ustez, ekintza debertigamien bidez prestatu daitezke merendola bat. Adibidez: fruta naturalak egin (gainera askotan ez gara ohartzen, baina, fruitak azukrea badauka), edota etxean, gurascokin batera, magdalenak, pastak, bizkotxoak etab prestatzea. Osasuntsuago izateaz gain, etxean azukre eta koipe gutxiko bizkotxoak etab egiteak eta ez erostak badauka haren heziketa aldeak, nire ustez. Adibidez: zuk mihi duzun bizkotxo egiteko esfortzatu behar zara; ongi alera arte saiakera asko egin behar dira, ez delako beti perfektu aterako etab. Honenkin argudiatu nahi dudana da, guzak (elikagaiak) ez direla oso azukredunak eta ez osasuntsuak izan behar debertigamiz eta goxoak izateko. Nire ustez, guzak ez osasuntsuak ondezkatzeko aukerak bilatzen hasi beharko genuke, nahi badugu gure gizarteak osasuntsuago izatea.

Egokitasuna eta aurkezpena

- Lana. *Eskatutako lanari erantzun dio, xedeari eta luzerari dagokienez. Hartzaileak eta asmo komunikatiboa aintzat hartu ditu.*
- Erregistroa. *Komunikazio egoerari dagokion erregistroa erabili du.*
- Itxura. *Testua oso txukun idatzi du. Itxura ona ematen du.*
- Letra. *Letra garbia, erregularra eta ulergarria da.*

Itema		Puntuazioa (0, 1, 2, 3 edo 4)
1	Egokitasuna eta aurkezpena	4
2	Koherentzia	4
3	Kohesioa	4
4	Zuzentasuna	4
Osotara		16

Alderdi honen balorazioa:

Lau baldintzak aise betetzen ditu; beraz, dagokion puntuazioa 4 puntu dira.

Koherentzia

- Zentzu orokorra. *Ekoizpenak zentzu globala du, gai baten inguruan antolatzen da. Tesia erraz ulertzen da.*
- Egitura. *Eskatutako testu generoaren berezko ezaugarriak errespetatu ditu: baditu izenburua, sarrera tesiarekin, argudioen gorputza eta ondorioa.*
- Adierazpena. *Argitasunez egin du azalpena. Ez dago kontraesanik edo inkoherentziarik. Izenburua intentzioarekiko egokia da.*
- Bilakaera tematikoa. *Informazioaren garapena igartzen da, ez dago jauzi edo omisiorik, eta bukaera ez du tarrapataka egin.*

Alderdi honen balorazioa:

Ikus daitekeenez, aise betetzen ditu lau eskakizunak; beraz, dagokion puntuazioa 4 puntu dira.

Kohesioa

- Puntuazioa. *Ez du puntuazio akatsik.*
- Lokailuak. *Testuan ideiak josita daude, lokailuak edo antolatzaileak erabili dituelako.*
- Errepikapenak. *Gehiegizko errepikapenak saihestu ditu.*

Alderdi honen balorazioa:

Hiru baldintzak betetzen ditu erraz. Dagokion puntuazioa 4 da.

Zuzentasuna

- Ortografia. *Ez du ortografia akatsik.*
- Komunztadura. *Komunztadura zaindu du, ez dago akatsik.*
- Aditza. *Aditz denborak ongi erabili ditu. Aditz formei dagokienez, hiru kasutan Nor-Nork erabili beharrean Nor erabili du.*
- Deklinabidea. *Deklinabide atzizkiak egoki erabili ditu.*
- Mendeko perpausak. *Mendeko perpausak sartu ditu (konpletiboa, erlatibozkoa, kausazkoa, helburuzkoa...).*

Alderdi honen balorazioa:

Bost baldintzetatik lau bete ditu eta bat erdizka; beraz, dagokion puntuazioa 4tik oso gertu dago.

